

Language death

DAVID CRYSTAL

Cambridge: Cambridge University Press, 2000, 198 or.*

Heriotza da liburu honen gaia. Baina ez jendearena, edo jende jakin batena, hizkuntzena edo hizkuntza batzuen baizik. Hizkuntzak ere hil egin baitaitezke. Zoritxarrez. Hizkuntza asko hil direla eta beste asko hiltzeko zorian, edo gutxienez arriskuan, daudela edonork daki. Hori zoritxarra dela, ordea, ez du edonork uste. Izan ere, askok nahiago lukete munduan hizkuntza gutxi batzuk baizik ez izatea, eta hainbat hobe bakarra izatea lortuko balitz. Ez da hori *Language death* liburuaren idatzi duenaren ikuspegia, geroxeago ikusiko ditugun arrazoiengatik. Hortik liburuari jarri dion izena ere. Ez du hizkuntzak galtzeaz edo desagertzeaz hitz egiten, hizkuntzen “heriotzaz” baizik.

Eta zergatik erabiltzen du hitz hori, heriotza? Bi arrazoiengatik. Batetik, hizkuntza bat ez baita hiltzen hizkuntza horretan hitz egiten duen azken pertsona hil arte. Horrela, atzo bizirik zegoen hizkuntza, gaur hilik egon daiteke. Hizkuntzalari bati gertatutakoa kontatzen digu Crystalek. Landa-ikerketan bat egitera joana zen Kamerunera 1995ean, ustekabearen oraindik aztertu gabe zegoen hizkuntza bat aurkitu zuenean. Baina kontua zen izena Kasabe zuen hizkuntza horretan mintzatzen zekien pertsona bat baizik ez zela gelditzen. Bere egonaldia ezin baitzuen luzatu, hizkuntzalariak hurrengo urtean itzultzea erabaki zuen. Eta itzuli ere itzuli zen; beranduegi, hala ere, Kasabez hitz egiten zekien hura egun batzuk lehenago hila baitzen. Gizon hura hiltzearekin batera, haren hizkuntza ere hil egin zen. Autoreak badu, gainera, beste arrazoi bat ere hizkuntzen heriotzaz hitz egiteko. Heriotza, berez, jendearen, eta animaliekin, gertatzen zaien zerbaite da. Eta inoren heriotzaren berri jakiteak halako zirrara bat eragiten digu gehienetan. Bada, hizkuntza bat hil dela jakitean ere horrelako zerbaite sentitu beharko genuke, autorearen iritziz. Hizkuntza bat hiltzea —eta asko dira arrisku bizian daudenak, gero esango dugun bezala— axola behar digun gauza da, gertaera hori garrantzi handikoa baita: hori da autorearen liburuaren zehar defendatzen duena. Sinetsita baitago bera, inoiz gertatzen bada munduan ingelesaz beste hizkuntzarik ez gelditzea, hori planetan gertatuko den hondamen intelektualik larriena izango dela.

* [Liburu-kritika honen lehenagoko bertsioa hemen argitaratu zen, 2001ean: *Gogoa* I (2): 293-300.]

Noiz dagoen hizkuntza bat hiltzeko arriskuan, zergatik den penagarria hizkuntza baten heriotza, zer egin daitekeen eta egin behar den hizkuntzei bizirik irauten laguntzeko: horra autoreak erantzun nahi dien galderetako batzuk. Dena dela, bost kapitulutan banatua dagoen liburu honetan irakurleak zer aurki dezakeen azaltzen hasi aurretik, egoki deritzot autorearen beraren aurkezpena egiteari.

David Crystal hizkuntzalaria da, eta munduko aditu nagusietako bat hizkuntzaren esparruan. Ipar Irlandan jaio zen, baina oraindik haurra zen familia Liverpoolera aldatu zenean. Ingeles hizkuntzan espezializatu zen Londresen. Geroztik, Londresetik hurbil dagoen Readingeko unibertsitatean egindako hamar urteak kenduta, ia beti Galesen bizi izan da eta han bizi da orain ere. Dudarik gabe hortik datorkio arriskuan dagoen galesari eutsi nahia. Liburuaren hitzaurrean dioenez, bere bizitzan lana franko egin du galesaren alde eta uste du galzorian dauden hizkuntzen arazoek berri bada kiela, burua ez ezik bihotza ere jarri baitu problema horietan. Horren frogagarri bikaina sarreraren bukaeran dioena da: alegia, liburu honen salmentatik autore-eskubide moduan berak hartu beharko lukeen guztia iraungitzeko zorian dauden hizkuntzen fundazioak, Foundation for Endangered Languages delakoak (<http://www.bris.ac.uk/Depts/Philosophy/CTLL/FEL>), jasoko duela. Ehun liburu inguru ditu idatziak irakasle eta argitaratzaile ere baden eta nazioarteko mailan izen handikoa den gure autoreak. Arrakasta izugarria izan dute Crystalen liburu hauek: *Cambridge Encyclopedia of Language* (1987; bigarren edizioa 1997), *Cambridge Encyclopedia of the English Language* (1995) eta *English as a Global Language* (1997).

Language death liburuan, hizkuntzek aurre egin behar dieten arriskuak aztertzen ditu David Crystalek, baita esaten ere zer egin daitekeen arrisku horien kontra. Ikuspegi labur baina egokia ematen digu egoera larrian dauden hizkuntzen arazoei buruz. Ikuspegi laburra esan dut, zeren 166 orrialdetan garrantzi handiko bost galdera hauei erantzuten saiatzen baita: 1. Zer da hizkuntza baten heriotza? 2. Zergatik behar dugu hizkuntza horietaz arduratu? 3. Zergatik hiltzen dira hizkuntzak? 4. Nondik behar dugu hasi? 5. Zer egin daiteke? Liburuak, egia esan, orrialde gehiago ere baditu, 198 goian adierazi denez, baina azkeneko 32 orrialdeetan erreferentziak, ohiko izen- eta gai-aurkibideak, arriskuan dauden hizkuntzez arduratzen diren erakunde batzuen zerrenda, eta dialekto, hizkuntza, hizkuntza-familia eta etnia taldeen aurkibidea ematen dira. Ikuspegi egokia ere ematen du autoreak, adibide eta kasu-azterketa oso ongi aukeratuz hornitua; irakurleak, bereziki hizkuntza minorizatuen kezka duenak, gauza on asko aurki dezake hor. Orain aipatuko ditugunak, besteak beste.

Crystalek, aurrena, gaitzak jotako hizkuntzen kopurua zein izan ote daitekeen argitzeari ekiten dio. Ez dela gauza erraza esaten digu. Izan ere, "hizkuntzaren" definizioa bera eztabaidatua da eta, ondorioz, baita hizkuntzen

kopuruak ere. Nolanahi ere, badirudi 6.000 inguru izan daitezkeela munduko hizkuntzak. Baina garrantzi handiagoa du hiztunen banaketak. Jadanik inork erabiltzen ez duen hizkuntza hila badago, zenbat hiztun behar dira hizkuntza batek bizirik iraungo duela ziurtatzeko? Autorearen arabera, galdera horri erantzutea ez da batere erraza. Hiztunen guztizko absolutuak ez du zentzurik, testuingurua kontuan hartu gabe deus gutxi balio baitu hiztunen kopuruak. Hala ere, kontuan hartzeko datuak honako hauek: 1.500 bat hizkuntzak 1.000 hiztun baino gutxiago dituzte, eta 100.000tik behera dituztenak ia 5.000 dira (% 80tik gora). Beste datu bat: munduko hizkuntzen % 96 munduko biztanleen % 4k bakarrik hitz egiten dituzte. "Arrisku mailak" sailkatzeko modu asko daude, baina gauza bat ziurra da: hizkuntza sail handi batek aurrez aurre begiratuko diola iraungitzeari berehalako batean eta, geroxeago, jende askok erabiltzen dituzten hizkuntzak ere arriskuan egon daitezkeela. Liburuan dagoen taula bakarra, duen interesagatik, merezi du hemen jartzea. Hiztun kopuruak, kopuru horietako bakoitza zenbat hizkuntzari dagokien, zein den horien ehunekoa hizkuntza guztien artean, behearazko eta goranzko ehuneko metatuak: horra zer eskaintzen duen taulak.

1. taula

	N	%	Beherazko % metatuak	Goranzko % metatuak
100 milioitik gora	8	0,13		99,9
10-99.9 milioi	72	1,20	1,3	99,8
1-9.9 milioi	239	3,90	5,2	98,6
100.000-999.999	795	13,10	18,3	94,7
10.000-99.999	1.605	26,50	44,8	81,6
1.000-9.999	1.782	29,40	74,2	55,1
100-999	1.075	17,70	91,9	25,7
10-99	302	5,00	96,9	8,0
1-9	181	3,00	99,9	

Eta, zergatik da hain axolazkoa hizkuntzen heriotza? Zergatik arduratu horretaz? Hori da, dudarik gabe, liburuan egiten den galdera funtsezkoena. Izan ere, askori ez zaio ardura arazo hori. Eta nola izango zaie ardura, hizkuntzen kopuruak gutxitzeak gizadiari onura dakarkiola uste badute? Horrela pentsatzen dutenek amesten duten munduan ez litzateke hizkuntza bat baikik izango, elkar aditzea eta bakea ziurtatuko lituzkeen hizkuntza bakarra. Crystalen arabera, bi akats ditu ikuspegi horrek. Batetik, inozokeria hutsa dela uste izatea mundu guztia hizkuntza berean mintzatzeak bakea eta elkartasuna ekarriko dituela; eta, bestetik, zein hizkuntza aukeratu? Autoreak, horrelako mundua baino askoz nahiago du jende guztiak gutxienez bi hizkuntza dakizkien mundua. Izan ere, bi hizkuntza horiek ez lukete helburu bera

izango: batak norberaren nortasuna edo identitatea babestuko luke eta besteak ulergarritasuna ziurtatuko luke. Dena dela, lerrokada honen hasierako galderari dagokionez, autoreak bost arrazoi hauek ematen ditu galzorian dauden hizkuntzez ardura izateko:

- **Aniztasuna beharrezko dugulako.** Aniztasun biologikoaren alde jarzen diren argudioek balio dute hizkuntzarentzat ere. Gehienek onartuko lukete aniztasun ekologikoa ona dela eta eutsi egin behar zaiola. Bi kontzeptutan oinarritua dago ideia hori. Batetik, “ekosistema” kontzeptuan: izaki bizidunak elkarrekiko harreman-sare batean bizi dira eta elementuetako bati egiten zaion kalteak ustekabeko ondorioak izan ditzake sistema osoarentzat. Bestetik, “aniztasuna” kontzeptuan: Crystalek aipatzen dituen zenbait zientzialarientzat, aniztasuna giza-diak arrakasta izateko aurrebaldintza bat da. Hori horrela bada, argudiatzen du gure autoreak, orduan hizkuntza-aniztasuna babestea funtsezkoa da, gizakia izateak esan nahi duenaren muin-muinean baitago hizkuntza.
- **Hizkuntzek identitatea adierazten dutelako.** Aniztasunaren beste aldean nortasuna edo identitatea aurkitzen dugu. Eta, nor ez da ardura-zen bere nortasunaz? Argudio honen muina Galesko atsotitz honetan omen dago bilduta: “Hizkuntzarik ez duen nazioa bihotzik gabeko nazioa da”. Eta, arriskuan dauden hizkuntzei buruz hitz eginez identitatea zergatik aipatzen den edozeinek uler dezake, baita elebarrak ere. Hauek aski dute pentsatzea dialektoak beren komunitatean betetzen duen eginkizunean.
- **Historiaren gordeleku direlako.** Arrazoi honi eskaintzen dion atala XVIII. mendeko liburu batean datorren oharpen bat aipatuz hasten du Crystalek. Hona Dr. Johnson delako batek, Eskozian barrena zebilela, 1773an esandakoa: “... hizkuntzaren bat galtzen den guztietan pena hartzen dut, zeren hizkuntzak nazioen pedigria baitira”. Hizkuntza batek bere hiztunen historia biltzen duela, alegia, bere baitan, eta hizkuntza bat galtzen denean, iraganarekin genituen lokarriak hautsi egiten direla. “Zeure hizkuntza galtzen duzunean, dio autoreak aipatzen duen Johan Van Hoordek, zeure iragana ukatzen diozu zeure buruari”.
- **Hizkuntzak giza jakintza osoaren zati direlako.** Hizkuntza bakoitzak bere erara du interpretatzen eta jasotzen giza izatea. Horregatik, asko ikas dezakegu haietatik. Beste hizkuntza batzuk ezagutzaz asko ikas daiteke, eta gozatu ere ez gutxi. Alde horretatik, elebarrak izatea desabantaila da, eta ez abantaila, hizkuntza bakoitzak giza adimena nola ari den ulertzeko ikuspegi berri bat ematen baitigu. Beste aipu askoren artetik, Ezra Pounden hau aldatu nahi dut hona: “Ez dago hizkuntzarik berak bakarrik giza jakinduria bere osoan gordetzen duenik, eta hizkuntza batek berak bakarrik ezin ditu adierazi giza ulermenaren forma eta maila guztiak”. Hizkuntza bat galtzen den bakoitzean,

eransten du Crystalek, filosofo, psikologo, hizkuntzalari, antropologo eta abarrek balio handiko datu-iturri bat galtzen dute.

- **Hizkuntzak berez direlako interesgarriak.** Hizkuntzari hizkuntzalaritzaren gaia den aldetik begiratzen zaio hemen. Giza mintzamenaren izaera definitzea da hizkuntzalaritzaren helburua. Hizkuntzak erakitzeari dagokionez, zein aukera-modu onartzen ditu giza garunak? Bada, begira: zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutzen ditugun eta zenbat eta atzerago joan gaitezkeen historian (eta historiaurrean), orduan eta egokiagoa izango da galdera horri emango diogun erantzuna. Zenbat eta hizkuntza gehiago aztertzen diren, orduan eta osoagoa izango da hizkuntza kontuan gizakiak dituen aukeren irudia.

Hizkuntzak zergatik hiltzen diren da beste galdera bat. Era askotako kausak daude, baina autoreak bi sailetan biltzen ditu denak. Jendea arrisku fisikoan jartzen duten faktoreak daude batetik: gosetea, eritasun inportatuak, desertifikazioa, kanpotarren esplotazioa, barneko politika-gatazkak. Baina hizkuntzak maizago hiltzen dira jendearen kultura aldatzen duten faktoreengatik: kultura eta hizkuntza “menderatzaileak” bereganatu egiten ditu hizkuntza eta kultura “menderatuko” jendeak. Faktore nagusietako bat hizkuntza bati buruzko jarrera negatiboak dira.

Zer egin daiteke hizkuntzen alde? Hizkuntza askori laguntzen hasteko beranduegi da, baina beste asko ez daude egoera hain larrian. Crystalen arabera, gauza asko egin daitezke hizkuntza horiei bizi berria emateko, hau da, horiek suspertu eta bizkortzeko. Aurrena behar orokorrak aipatzen ditu berak. Lehentasun nagusiak ezartzea da horietako bat: esaterako, informazioa biltzea hizkuntzaren egoera zein den jakiteko (hiztunen kopurua, bizi diren giroa, hizkuntzarekiko duten jarrera, mintzatzeko erraztasuna, adin mailak), kontzientzia sortzea eta handitzea, bai tokian tokiko erkidego edo komunitateetan, bai nazioarteko komunitatean. Dena dela, komunitateak berak nahi behar du bere hizkuntza salbatu: hori da aurren-aurreneko urratsa autorearentzat. Hizkuntza bat biziberritzeko edozein ahaleginek bi gauza hauek lorzen saiatu behar du: komunitate osoak aldaketa zinez eta benetan onartzea eta dialekto guztiak aintzat hartzea, batetik, eta hizkuntza kultura zabalago baten parte bezala ikustea, bestetik.

Eman dezagun aurreko lerrokadan esan dena nolabait lortu dela. Orduan, zer egin? Nolabaiteko arrakasta izan duten hizkuntzei eusteko proiektuetan ba ote dago maiz agertzen den faktorerik, hizkuntzen biziberritzeko teoriak postulatuak hartzerik izango lukeenik? Crystalek horrelako sei faktore aurkitzen ditu, axolarik handienekoak guretzat ere dudarik gabe:

- **Prestigioa.** Indartu nahi den hizkuntzan mintzaten direnen prestigioa handitu beharra dago menderatzaile den komunitatearen aurrean. Jendea zu hor zaudela ohartzen hastean, orduan etorriko da prestigioa. Epe

luzera, hizkuntza eremu publikoko gero eta sektore gehiagotan ikusgai eta entzungai bihurtzea da helburua. Negozioen eta legearen esparruak eta herri-administrazioa garrantzi bereziko xedeak dira.

- **Aberastasuna.** Hitzunek gehitu egin behar dute beren aberastasuna komunitate gailenari dagokionez. Hasteko, dirua behar delako hizkuntza baten irudi sozial eta politikoa hobetzeko, baina baita ekonomiaren egoera onak komunitate baten autoestimuan funtsezko eragin positiboa duelako ere. Adibide gisa Kataluniako ekonomia sendotua aipatzen du autoreak. Katalanaren erabilera bultzatu duen faktore nagusietako bat ekonomiaren indartzea izan da. Bestalde, turismoaren garrantzia ere azpimarratzen du. Turistak, izan ere, etorri eta joan egiten dira eta, autorearen arabera, haien presentzia nekez izango da mehatxagarria bertakoentzat. Gure artean gertatutakoa kontuan hartzen bada, ikuspuntu hori, gutxienez, eztabaidagarria da. Dena dela, Crystalek Suitzako alde batzuetako eta Italiako iparraldeko kasuak ditu gogoan. Gure kasuan, gainera, turista askoren hizkuntza bertakoentzat ezaguna izatea eta bertako askok euskara estimu handitan ez edukitzea faktore erabakigarriak izan dira, segur aski.
- **Boterea.** Mendeko hizkuntzaren hitzunek gehitu egin behar dute beren legezko boterea gailen den komunitatearen aurrean. Izan ere, egia da kulturen eta hizkuntzen eskubideen aldeko sinpatia orain hamar-kada batzuk baino handiagoa dela herri-iritzian, baina oraindik ere segur aski gehiago dira munduan hizkuntzen eskubideak, sostengatu ordez, zapaldu edo gutxienez kontuan ez hartu egiten dituzten estatuak. Crystalek dio hori, ez nik. Baina ez daukagu etxetik atera beharrik hori horrela dela jakiteko.
- **Hezkuntza.** Arriskuan dagoen hizkuntzak aurrera egingo badu, hitzunek presentzia inportantea izan behar dute hezkuntza-sisteman. Lehentasuna hizkuntza etxean presente egoteari eman behar bazaio ere, eskola-sisteman presentziarik ez duen hizkuntzaren etorkizuna iluna da. Bestalde, material onik gabe ezin du inolako irakaskuntza-programak arrakastarik izan, eta material onek ere ez dute balio horiek erabiltzen dakien irakaslerik gabe. Hortaz, irakasle izateko jendea gaitzea ezinbestekoa da larri dabilzan hizkuntza gehienentzat.
- **Alfabetatzea.** Hau hezkuntzaren betekizun nagusietako bat da, noski, baina jartzen dituen arazo bereziengatik aparte jartzea merezi duela uste du Crystalek, eginkizun berdingabea baitu hizkuntza bati irauarazteko ahaleginetan. Alfabetatzeak dakarren arazo bat, zein dialekto aukeratu da.
- **Teknologia elektronikoa.** Informazio teknologikoak, eta Internetek, bereziki, aukera berriak eskaintzen dizkie hizkuntza ahulei. Izan ere, Internetekin denak berdina dira. Ingelesean egon, nahiz beste edozein hizkuntzatan, web-orria berdina kostatzen da. Interneti esker, identitatea ez dago kokagune geografikora mugatua. Jendeak orain, nonahi dagoela ere, bere hizkuntza-identitateari euts diezaioke bere ahaide, lagun eta kideekin dituen harremanetan.

Zerrenda horren ondoren, hizkuntzalariaren eta hizkuntza biziberritzeko taldearen eginkizuna azpimarratzen du autoreak. Arrisku-egoeran dauden hizkuntzei dagokienez, hizkuntzalaria ezin zaie hurbildu jakiteko helburu hutsarekin. Hizkuntza horiek aztertu nahi izatea hizkuntza horietan mintzatzaren jendeaz arduratu gabe ezin onartuzko gauza iruditzen zaio Crystali. Gaixo dagoena helburu zientifiko hutsetarako aztertzea ezin onartuzkoa den bezalaxe. Talde suspertzaileari dagokienez, hizkuntzek, biziko badira, komunitateak beharrezko dituztela gogoratzen digu autoreak. Hizkuntza bat salbatzeak konpromisoa eskatzen du, komunitate osoarena, baina plangintza eta gidaritzaren beharrezkoak dira. Hortik komunitate osoaren izenean arituko diren jende trebatu eta hautatuen parte-hartzearen garrantzia. Lantalde horren egitekoen zerrenda luze bat ere badator liburuan.

Language death liburuan aurki daitezkeen puntu nagusiak dagoeneko aipatuta daudela uste dut. Hala ere, bukatu aurretik bi gauzatxo erantsi nahi ditut. Lehenengoa irakurle bati baino gehiagori bururatuko zitzaion honako galdera honi erantzuteko: “Esaten al du deus euskarari buruz?” Erantzuna da ez duela ezer esaten. “Basque” hitza bi aldiz ageri da testuan: aurrena oinohar batean, “Country” izenaren izenondo bezala, UNESCOren babespean eta Euskal Herriko dirulaguntzari esker Bilbon egiten ari diren “World Languages Report” delakoa aipatzean (<http://www.unescoeh.org> helbidean aurki daiteke horren berri), eta, hurrena, arriskuan dauden hizkuntzen prestigio-beharraz ari dela, hizkuntza menderatzailean jarrita dauden errepideetako seinaleen gainean haien euskal edo gales ordainak pintatu izan direla aipatzen duenean. Dena dela, galesaren egoeraz ere ez du asko hitz egiten. Arrazoia, nire ustez, honako hau izan daiteke: Crystal batez ere kezkatzen duten hizkuntzak berehala hiltzeko zorian daudenak dira. Gorago jarri den taulan ikus daitekeenez, munduko hizkuntzen % 80 baino gehiagok euskarak baino hixtun gutxiago dituzte. Bigarren gauza, bukatu baino lehenago aipatu nahi dudana, autoreak hizkuntza-komunitatearen barnean hizkuntza bera dela eta egon daitezkeen aurkako jarrerari buruz egiten duen oharpena da. Hortik sortzen diren gatazkek azkartu egin dezakete hizkuntzaren heriotza. Galesen, adibidez, kontaezinak omen dira hizkuntza kontuan erradikalak direnen erruz bestela galesari izango zioten atxikimendua galdu dutenak. Belaunaldi zaharragoek —eta hau toki guztietan gertatzen dela dio Crystalek— ez daukate “egokitza” belaunaldi gazteagoen mintzaera, eta hizkuntzaren zale sutsuek hartzen dituzten jarrera hertsiek mesede baino gehiago kalte egin diezaioke beren kausari. Euskara egokiaren eredu bezala gure gurasoena edo oraingo baserritarrena jartzea, adibidez, ez ote da gehiegi? Ni neu, behinik behin, ez naiz gauza gurasoen euskara egiteko, ezta oraingo baserritarrena ere. Nirea, noski, txarragoa da, eta pobreagoa. Hala ere, euskara izaten segitzen du.

Pello Huizi

ILCLI (UPV/EHU)